



Usurbilgo Udala

2024/02/15

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2024KO OTSAILAREN 15EAN  
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Iratxe Begiristain Otegi eta Xabat Beloki Segurola.

**Idazkaria:** Xabin Juaristi Arrieta.

Ez dira bertaratu: Ainhoa Arrozpide Landa eta Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

**1.- 2024KO URTARRILAREN 30EKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Batzarkideek 2024ko urtarrilaren 30eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- SAN ESTEBAN KALEA 8 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILU BERRIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2021OHAN0004).**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2021-0199  
2021-OHAN-0004

SAN ESTEBAN KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H-20972337) ordezkartzan diharduen B&A INMOGEST SL entitateko ANGEL AINZIBURU ODRIOZOLA jaunak, San Esteban kalea 8 etxean jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

**AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko azaroaren 30ean, zera erabaki zuen: SAN ESTEBAN KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H-20972337) ordezkartzan diharduen B&A INMOGEST SL entitateko ANGEL AINZIBURU ODRIOZOLA jaunari, San Esteban kalea 8 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	201.204,51 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>243.991,03 euro</b>
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 536,12 €
	Fidantza (%120): 643,34 €



Usurbilgo Udala

2024/02/15

### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, SAN ESTEBAN KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H-20972337) ordezkartzan diharduen B&A INMOGEST SL entitateko ANGEL AINZIBURU ODRIOZOLA jaunak, San Esteban kalea 8 etxean jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amai Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2024ko urtarrilaren 30ean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** San Esteban kalea 8 etxean jarritako igogailu berriari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Erabakia errenta teknikariari jakinaraztea, zergen kitapena egin dezan.

**LAUGARRENA:** Erabakia berri interesatuari ematea.

### **3.- PUNTAPAX KALEA 4 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILU BERRIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2022OHAN0017).**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0318  
2022-OHAN-0017

VILLA MARIA JOSEFA (PUNTAPAX KALEA 4) ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H75165563) ordezkartzan diharduen BELTRAN ASCENSORES Y MONTACARGAS S.L. enpresako ANA ISABEL BELTRAN AGUIRRE andereak, Puntapax kalea 4 etxean jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

### AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko uztailaren 21ean, zera erabaki zuen: VILLA MARIA JOSEFA (PUNTAPAX KALEA 4) ETXEKO JABEKIDEEI, Puntapax kalea 4 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

#### **OBRAREN EZAUGARRIAK**

Exekuzio materialeko aurrekontua:	79.025,31 €
-----------------------------------	-------------



Usurbilgo Udala

2024/02/15

<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>79.025,31 €</b>
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11. artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 397,31 € Fidantza (%120): 476,77 €

### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, VILLA MARIA JOSEFA (PUNTAPAX KALEA 4) ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H75165563) ordezkartzan diharduen BELTRAN ASCENSORES Y MONTACARGAS S.L. enpresako ANA ISABEL BELTRAN AGUIRRE andereak, Puntapax kalea 4 etxean jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amai Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2024ko urtarrilaren 31ean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** Puntapax kalea 4 etxean jarritako igogailu berriari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Erabakia berri interesatuari ematea.

### **4.- OSINALDE INDUSTRIALDEKO ZELAIAUNDI KALEA 2AN KOKATUTAKO TREMEFIL-IZAGUIRRE S.A. ENPRESAREN LANTOKIAN HAUNDITUTAKO SUBERAKETA-LABEEN HOBIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2022OHAN0026).**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0429  
2022-OHAN-0026

TREMEFIL-IZAGUIRRE, S.A. enpresaren ordezkartzan diharduen NATALIA GONZÁLEZ VILLARÓN andereak, Osinalde industrialdeko Zelaiaundi kalea 2ko lantokian haunditutako suberaketa-labeen hobiaren obra amaierako ziurtagiria aurkeztearekin batera, lehen erabilera baimena eskatu du.

### AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA



Usurbilgo Udala

2024/02/15

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko martxoaren 28an zera erabaki zuen: TREMEFIL-IZAGUIRRE, S.A. enpresari, Osinalde industrialdeko Zelaiaundi kalea 2ko lantokian suberaketa-labeen egungo hobia haunditzeko udal baimena ematea.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	154.067,61 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>156.168,04 €</b>
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.321,23 €
	Fidantza (%120): 1.585,48 €

#### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, TREMEFIL-IZAGUIRRE, S.A. enpresaren ordezkartzan diharduen NATALIA GONZÁLEZ VILLARÓN andereak, Osinalde industrialdeko Zelaiaundi kalea 2ko lantokian haunditutako suberaketa-labeen hobiaren obra amaierako ziurtagiria aurkeztearekin batera, lehen erabilera baimena eskatu du.

#### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amai Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2024ko otsailaren 1ean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI:** Osinalde industrialdeko Zelaiaundi kalea 2ko lantokian haunditutako suberaketa-labeen hobiari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Erabakia errenta teknikariari jakinaraztea, zergen kitapena egin dezan.

**HIRUGARRENA:** Erabakia berri interesatuari ematea.

**5.- JON OLASAGASTI BALERDIRI, TXARATXIKI ETXEA (KALEZAR 32) BIRGAITZEKO OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA (2023OHAN0022).**

Esp.zk.: HZ.04/2023-0465  
2023-OHAN-0022

JON OLASAGASTI BALERDI jaunak, Txaratziki etxea (Kalezar 32) etxea birgaitzeko obretarako udal baimena eskatu du.



Usurbilgo Udala

2024/02/15

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	<b>114.319,85 €</b>
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 615,42 €
	Fidantza (%120): 738,50 €

### TXOSTEN TEKNIKOAK

Aurkeztutako Exekuzio Proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2024ko otsailaren 9an honako ALDEKO txostena eman du hitzez hitz:

**07\_2023OHAN022**

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**OBRA HANDIAK**  
**TXARA TXIKI (KALEZAR 32) ETXEA BIRGAITZEKO OBRA BAIMEN**  
**ESKAERARI TXOSTENA**

---

ESKATZAILEA: Jon Olasagasti Balerdi  
ESKAERA: Txara txiki (Kalezar 32) etxea birgaitzeko obra baimena  
ESKAERA DATA: 2023-11-30  
KOKAPENA: Kalezar 32, Usurbil  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2023-OHAN-022 (HZ.04/2023-465)  
AURREKONTUA (PEM): 114.319,85 euro

HONDAKINEN KUDEAKETA (PEM): 615,42 euro      FIDANTZA (%120):  
738,50 euro

---

### **AURREKARIAK**

- 2023ko azaroaren 30ean, Jon Olasagasti Balerdik Txara txiki (Kalezar 32) etxea birgaitzeko obra baimena eskatu zuen.

### **TXOSTENA**

Aurrekarietan esan bezala, adierazitako obra baimena eskatzearekin batera, interesdunak dagokion Exekuzio Proiektua aurkeztu du. Dokumentuak jasotzen ditu: memoria (besteak beste: agenteak, aurrekariak, proiektuaren deskribapena, eraikuntzaren aspektu teknikoen justifikazioa, araudiaren justifikazioa), planoak, aurrekontua, eragikortasun energetikoaren ziurtagiria, kalitate kontrolerako plana, hondakinen kudeaketa azterlana, segurtasun eta osasunari buruzko azterlana, eta baldintza plegua. Guztia Ekaitz Uribe Rus arkitektoak sinatua eta dagokion elkargoak ikus-onetsita dago (COAVN 2023-11-28).



Usurbilgo Udala

2024/02/15

Memorian adierazten denez, egikaritu nahi dena barne erreforma da eta jarraian adierazitako eskuhartzeak proposatzen dira:

*1- egitura ikutzen duena behe solairua eta lehen solairua konektatzeko*

*2- energia eraginkortasuna hobetzeko isolamendu eta hermetizazio lanak planetatzen dituen*

*3- Saneamendu sare txikian, argindar instalazioan, eta ur bero eta berokuntza instalazioan hobekuntzak, moldaketak eta aldaketak plantetazen ditu*

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, honako hau esan daiteke:

- DOKUMENTAZIOAREN EGOKITASUNA: Proiektua dagokion teknikari eskudunak sinatuta eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsita dago. Eraikuntzako Kode Teknikoak agintzen duen gutxienerako dokumentazioa barne hartzen du, hortaz, ontzat ematen da.
- HIRIGINTZA ARAUDIA BETETZEA: Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera, aztergai den eraikina lurzoru ez-urbanizagarrian kokatzen da, nekazaritza eta abeltzaintza babesteko kategorian, hain zuzen. Hortaz, aplikagarri zaio AASS-etako 4.3. Atala, Lurzoru ez ubanizagarriaren araudia.

53. artikuluan ezartzen diren eraikuntza baldintzak bete beharko dira:

- Fatxadak: hegoaldeko fatxada garbitu eta margotu egingo dela adierazten da, isolatzailea barruan kokatuz. Iparraldeko fatxadan aldiz, SATE sistema jarriko da. Kanpo hormen akabera kolore txuriko kare mortairuzkoa izango dela esaten da. Ontzat ematen da.
  - Estalkiko isolatzailea gapirio artean kokatuko da eta egungo malda mantenduko da. Ontzat ematen da.
  - Kanpo arotzia zurezkoa izango da eta kontraleihoak erabiliko dira. Ontzat ematen da.
- EKT ETA GAINONTZEKO ARAUDIA: Orohar, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia betetzearen justifikazioa aurkeztu da (Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.) eta ontzat eman daitekeela esan behar da.
  - BIZIGARRITASUN BALDINTZEN BETETZEA: Eraikuntzaren erabilera eta bizigarritasun baldintzei dagokionez, arau orokorren 37 artikuluari jarraiki, bertan aplikagarriak dira babes ofizialeko etxebizitzetara dagozkien ordenantzak (edo haiek ordezkatzeko dituen 80/2022 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzetara eta zuzkidura-bizitokiaren gutxienerako bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen).

Memorian jasotako justifikazioa aztertuta, ziurta daiteke egitasmoak oro har betetzen dituela aplikagarriak diren baldintzak (segurtasun-,



osasungarritasun-, sarbide- eta irisgarritasun-, espazio- eta hornidura-baldintzak, alegia). Edonola ere, kontuan izan beharko da AASS-etako 37. artikuluan, bizigarritasun baldintzen atalean, esekilekuari buruz ezartzen dena:

*5. Etxebizitza guztiek arropa zabaltzeko tokia edo esekitegia izango dute patioetan, honelakorik balego, edo teilapeko solairuetan. Soluzio hauek ezinezkoak balira, esekitegiak etxaldeetako patioetako fatxadetan edo kale nagusi ez den besterakoetan ezarriko lirateke, arropa kaletik ezin ikus daitekeelarik; esekitegiak eta eraikuntzaren gainerakoak era homogeneoan diseinatuko dira.*

- IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA: Ezinbestean bete beharko da indarrean diren EKT-DB-SUA eta Irisgarritasun Araudia (1997ko Legea eta ingurune hiritar eta eraikinetako arau teknikoei buruzko 68/2000 Dekretua). Aurkeztutako justifikazioa ontzat eman daiteke.
- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Gogorarazten da, obraren egikaritzan zehar lurzoru publikoa okupatu behar bada, dagokion baimena lortu beharko dela.
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 615,42 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batera ( 738,50 euro). Fidantza itzultzeko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuta (112/2012 Dekretuaren 6. artikuluari jarraiki). Oro har, bete beharko dira RD 105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK: Sustatzaileak udal-zerbitzu teknikoei eskatuko dizkie, hala badagokio, udal-zerbitzuen sareekiko loturak gauzatzeko beharrezko baldintzak eta jarraibideak.
- ZUINKETA AKTA: Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri eta zuinketa akta izenpetu beharko da.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - Obra hasteko gehienezko epea: 6 hilabete
  - Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 6 hilabete
  - Obra egikaritzeko gehienezko epea: 12 hilabete
- OBRA AMAIERA: Obra amaitu ondoren, Usurbilgo Arau Subsidiarioen araudi orokorraren 16. artikuluari jarraiki, lehen erabilerako baimena lortu ahal izateko, eskerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira, besteak beste:
  - *Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren*



Usurbilgo Udala

2024/02/15

*funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.*

- *Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.*
- *Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.*
- *Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.*
- *Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturiko ur hornidura instalakuntzaren ziurtagiria, Tentsio Baxuko Instalakuntzaren ziurtagiria eta instalazio termikoaren ziurtagiria.*

## ONDORIOA

Goian esandakoa kontuan izanik, Txara txiki (Kalezar 32) etxea birgaitzeko obra baimenari ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere aipatutako baldintzak betetzen diren artean.

Hori da behean sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste batzuen kaltetan izan gabe. Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinaduraren datan.

Udal arkitektoa

Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** JON OLASAGASTI BALERDI jaunari, Txaratxiki etxea (Kalezar 32) etxea birgaitzeko obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Ekaitz Uribe Rus arkitektoak 2023ko azaroan idatzitako Exekuzio Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 615,42 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (738,50 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**738,50 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "Fidantza: 2023-OHAN-0022" jarriaz





kontzeptuan.

- **Obrak hasi aurretik**, obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA** izenpetu beharko da. Horretarako beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- AASSetako 53. artikuluan ezartzen diren eraikuntza baldintzak bete beharko dira:
  - Fatxadak: hegoaldeko fatxada garbitu eta margotu egingo dela adierazten da, isolatzailea barruan kokatuz. Iparraldeko fatxadan aldiz, SATE sistema jarriko da. Kanpo hormen akabera kolore txuriko kare mortairuzkoa izango dela esaten da. Ontzat ematen da.
  - Estalkiko isolatzailea gapirio artean kokatuko da eta egungo malda mantenduko da. Ontzat ematen da.
  - Kanpo arotzia zurezkoa izango da eta kontraleihoak erabiliko dira. Ontzat ematen da.
- Kontuan izan beharko da AASS-etako 37. artikuluan, bizigarritasun baldintzen atalean, esekilekuari buruz ezartzen dena:

*5. Etxebizitza guztiek arropa zabaltzeko tokia edo esekitegia izango dute patioetan, honelakorik balego, edo teilapeko solairuetan. Soluzio hauek ezinezkoak balira, esekitegiak etxaldeetako patioetako fatxadetan edo kale nagusi ez den besterakoetan ezarriko lirateke, arropa kaletik ezin ikus daitekeelarik; esekitegiak eta eraikuntzaren gainerakoak era homogeen diseinatuko dira.*

- **AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK**: Sustatzaileak udal-zerbitzu teknikoei eskatuko dizkie, hala badagokio, udal-zerbitzuen sareekiko loturak gauzatzeko beharrezko baldintzak eta jarraibideak.
- **EKT ETA GAINONTZEKO ARAUDIA**: Edonola, indarrean den araudia bete beharko da, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia: Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.
- **IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA**: Ezinbestean bete beharko da indarrean diren EKT-DB-SUA eta Irisgarritasun Araudia (1997ko Legea eta ingurune hiritar eta eraikinetako arau teknikoei buruzko 68/2000 Dekretua). Aurkeztutako justifikazioa ontzat eman daiteke.
- **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA**: Gogorarazten da, obraren egikaritzan zehar lurzoru publikoa okupatu behar bada, dagokion baimena lortu beharko dela.
- Obra baimenaren epeak:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.



Usurbilgo Udala

2024/02/15

- Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
- Obraren egikaritzea epe gehiengoa: 12 hilabete.
- Obra amaitu ondoren, Usurbilgo Arau Subsidiarioen araudi orokorraren 16. artikuluari jarraiki, lehen erabilerako baimena lortu ahal izateko, eskerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira, besteak beste:
  - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
  - Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
  - Eraikin edo instalaketan kanpoaldearen argazkiak.
  - Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketan egiazko kostea adieraziz.
  - Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektrairindarraren hornikuntza sareko «Loturako Buletina»ren eta, kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako.
- **Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:**
  - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak diotenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
  - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
  - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

## **6.- KIROL ELKARTEEK OHIKO KIROL EGITASMOAK BURUTZEKO 2023KO DIRULAGUNTZEN KITAPENA (2023KDKE0001).**

### **Ikusirik**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urtarrilaren 31ko datan, norgehiagoka erregimeneko 2023. urterako dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2023ko otsailaren 17an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Guztira zazpi eskaera jaso ziren.



Usurbilgo Udala

2024/02/15

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak, kirol saileko teknikariaren 2023ko apirilaren 24ko txostena kontutan hartuta, 2023ko apirilaren 27ko bilkuran ebazpen proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko (GAO 2023-05-16, eta akatsen zuzenketa: GAO 2023-05-26).

Epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko ekainaren 22an, dirulaguntza kopuruak behinbetiko onartu zituen eta baita 1. zatiaren ordainketak ere.

Eskatzaileek, dirulaguntzaren zuriaketa aurkeztu zuten, zegokien epean.

### **Eta kontutan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2023/02/01).
- Dirulaguntza oinarriak (GAO, 2023/02/17).
- 2024ko otsailaren 7ko teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** Kirol elkarten ohiko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntzen 2. ordainketetako baimentze eta xedatze gehigarri hauek onartu eta ordaintzea:

<b>Eskatzailea</b>	<b>Onartutako zenbateko gehigarria</b>
Usurbilgo Pagazpe Pilota Elkartea	2.166,86 €
Tximeleta Kirol Elkartea	711,44 €
Zubieta Pilota Elkartea	260,04 €
Judo Club Usurbil Kirol Elkartea	3.309,44 €
Usurbil Kirol Elkartea	9.036,12 €
Usurbil Herriarentzat Futbol Kirol Taldea	9.357,29 €
Baxurde Txiki Kirol Elkartea	158,81 €
<b>Guztira</b>	<b>25.000,00 €</b>

**Bigarrena:** Kirol elkarten ohiko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira:

1.4300.481.341.00.01 2023 Kirol taldeen ohiko dirulaguntza zuzenak



Usurbilgo Udala

2024/02/15

**Hirugarrena:** Kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea.

**Laugarrena:** Interesatuei erabakiaren berri ematea.

## **7.- KIROL ELKARTEENAK EZ DIREN KIROL JARDUERAK BURUTZEKO 2023KO DIRULAGUNTZEN KITAPENA (2023KDEE0001).**

### **Ikusirik**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urtarrilaren 31ko datan, norgehiagoka erregimeneko 2023. urterako dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2023ko otsailaren 17an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Guztira bost eskaera jaso ziren.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrek, kirol saileko teknikariaren 2023ko apirilaren 24ko txostena kontutan hartuta, 2023ko apirilaren 27ko bilkuran ebazpen proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko (GAO 2023-05-16, eta akatsen zuzenketa: GAO 2023-05-26).

Epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko ekainaren 22an, dirulaguntza kopuruak behinbetiko onartu zituen eta baita 1. zatiaren ordainketak ere.

Eskatzaileek, dirulaguntzaren zuriaketa aurkeztu zuten, zegokien epean.

### **Eta kontutan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2023/02/01).
- Dirulaguntza oinarriak (GAO, 2023/02/17).
- 2024ko otsailaren 7ko teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu zuen aho batez:

## **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** Kirol-elkarteenak ez diren kirol jardueretako dirulaguntzen 2. ordainketetako baimentze eta xedatze gehigarri hauek onartu eta ordaintzea:

<b>Eskatzailea</b>	<b>Onartutako zenbateko gehigarria</b>
Einean Guraso Eskola	60,00 €



Usurbilgo Udala

2024/02/15

Agurtzane Alkorta Urdampilleta	105,00 €
San Praixku Guraso Elkartea	18,00 €
Santuene Kultur Elkartea	27,31 €
<b>Guztira</b>	<b>210,31 €</b>

**Bigarrena:** Eskatzaile hauek Udalari diru-itzulketa egitea:

Eskatzailea	Itzultzekoa
Txokoargi Kultur Elkartea	107,03 €
Guztira	107,03 €

Diru-itzulketa jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

KUTXA: ES09 2095 5069 07 1060024832

EUSKADIKO KUTXA: ES15 3035 0140 30 1400900017

**Hirugarrena** Kirol elkarten ohiko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira:

1.4300.481.341.00.07 2023 Kirol-elkartenak ez direneko dirulaguntzak

**Laugarrena:** Kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea.

**Bosgarrena:** Interesatuei erabakiaren berri ematea.

## 8.- KIROL EGOKITUKO JARDUERAK BURUTZEKO 2023KO DIRULAGUNTZEN KITAPENA (2023KDEG0001).

### Ikusirik

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urtarrilaren 31ko datan, norgehiagoka erregimeneko 2023. urterako dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2023ko otsailaren 17an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Guztira eskaera bakarra jaso zen.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak, kirol saileko teknikariaren 2023ko apirilaren 24ko txostena kontutan hartuta, 2023ko apirilaren 27ko bilkuran ebazpen proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko (GAO 2023-05-16, eta akatsen zuzenketa: GAO 2023-05-26).

Epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.



Usurbilgo Udala

2024/02/15

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko ekainaren 22an, dirulaguntza kopuruak behinbetiko onartu zituen eta baita 1. zatiaren ordainketak ere.

Eskatzaileak, dirulaguntzaren zuriketa aurkeztu zuen, zegokion epean.

### **Eta kontutan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2023/02/01).
- Dirulaguntza oinarriak (GAO, 2023/02/17).
- 2024ko otsailaren 7ko teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** Kirol egokituko jarduerak burutzeko dirulaguntzen 2. ordainketetako baimentze eta xedatze gehigarri hauek onartu eta ordaintzea:

<b>Eskatzailea</b>	<b>Onartutako zenbateko gehigarria</b>
Usurbilgo Pagazpe Pilota Elkartea	189,70 €
<b>Guztira</b>	<b>189,70 €</b>

**Bigarrena:** Kirol egokituko jarduerak burutzeko dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira:

1 4300.481.341.00.06 2023 Kirol egokitua

**Hirugarrena:** Kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea.

**Laugarrena:** Interesatuei erabakiaren berri ematea.

## **9.- NORGEHIAGOKA ERREGIMENENKOAK EZ DIREN KIROL EGITASMOAK GARATZEKO 2023KO DIRULAGUNTZA ZENBATEKOAK ONARTZEA (2023KINE0001).**

### **Ikusirik**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urtarrilaren 31ko datan, 2023. urterako norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2023ko otsailaren 17an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Guztira 14 eskaera jaso ziren.



Usurbilgo Udala

2024/02/15

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak, 2023ko abenduaren 18ko teknikariaren txostena kontutan hartuta, 2023ko abenduaren 20ko bilkuran ebazpen proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

### Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO, 2023/02/01)
- Dirulaguntzaren oinarriak (GAO, 2023/02/17)
- 2023/12/18ko kirol teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehena:** Laguntza berezietarako onartutako dirulaguntza-zenbateko hauek baimentzea, xedatzea eta ordaintzea partida honen kargura: 1.4300.481.341.00.03 2023

Eskatzailea	Eskatutako zenbatekoa	Onartutako dirulaguntza
Zubieta Guraso Elkartea	50,00 €	25,00 €
Udarregi Ikastola	196,20 €	98,10 €
Donostialdea Bizikletan Txirrindularitza Kluba	662,26 €	331,13 €
Usurbil KE	1.207,00 €	603,50 €
Usurbil KE	5.154,39 €	2.577,20 €
<b>Guztira</b>	<b>7.269,85 €</b>	<b>3.634,93 €</b>

**Bigarrena:** Kirolarien oinarritzko osasun miaketetarako dirulaguntza-zenbateko hauek baimentzea, xedatzea eta ordaintzea partida honen kargura: 1.4300.481.341.00.08 2023

Eskatzailea	Onartutako zenbatekoa	Izendatutako dirulaguntza
Usurbil KE	1.850,00 €	1.850,00 €
<b>Guztira</b>	<b>1.850,00 €</b>	<b>1.850,00 €</b>

**Hirugarrena:** Eskolaz kanpoko kirol jardueretarako dirulaguntza-zenbateko hauek baimentzea, xedatzea eta obligatzea: 1.4300.481.341.00.10 2023

Dirulaguntza jasoko duena	Onartutako zenbatekoa	Izendatutako dirulaguntza
Udarregi ikastola	1.430,00 €	864,00 €



Usurbilgo Udala

2024/02/15

Usurbil Herriarentzat Futbol Elkartea	254,00 €	108,00 €
Usurbil Kirol Elkartea	350,00 €	108,00 €
<b>Guztira</b>	<b>2.034,00 €</b>	<b>1.080,00 €</b>

**Laugarrena:** Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Bosgarrena:** Kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea ordainketak egiteko.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**